ERŔBESTEKO ELEŔTIAK

# LUGIÑA, MUTIKOA TA ESKIL̃OSOAK

(GEŔKERATIK EUSKERATUA)

Gaztañak batuta Azaroa edo Azil̃a eldu zan bere leiekaz, eta lugin bat bere soloan galazia ereinda zutunik zegoan azia yaboten, eskil̃oso nabaŕ-kaŕakada-gogaikaŕidun-talde gogoŕa ta bela-mika solo-azi-azteŕtzal̃eak solora etoŕten yakozan-da.

Lugiñak abal̃a makuŕdun mutikoa eukan laguntzat. Eskil̃asoak, baña, «ekak abail ori» entzuten oituta egozan-da, zaŕak mutikoari abal̃a eskatzen eutsonean aŕiak yauŕtin baño len iges egiten eben.

Lugiñak, baña, beste bide ala antze bat asmau eban, eta mutikoari deituta esan eutson: «I, txotxo, txori yakintsuen adiskide izan beaŕ yoguk; beraz aik datoŕkezanean nik ogia eskatuko dauskat, ik baña ez eidak emon ogia, abal̃a baño». Etoŕi ziran atzera be eskil̃osoak eta galaziak azteŕtu ta yaten eragoyoen. Lugiñak oŕduan, itunbenaren arauz, ogia eskatzen dau ta eskil̃asoak eztabe igesten; mutikoak baŕiz abal̃a damotso aŕiz beterik. Zaŕak yauŕtiten dauz buŕundadaka abal̃ako aŕiak eta bata buruaren eŕdi-eŕdian yoten dau, bestea iztaŕean, eta aragokoa soŕburuan; enparauak alde-egin eben solotik.

Duŕdureak uŕten eutsen bidera ta zeŕ yasoten yaken itandu eutsen eta eskil̃oso batek esan eutson: «Igesi gizon-enda gaiztoagandik, alkaŕi gauza bat esanda beste bat egin daroe-ta».

LAŔAKOETXEA'TAŔ B.



# EUSKAL ESNALEA

1927

EPAIL̃A

279'g zenbakia